

KOSTUAK

Parlantxin tabernak bi kostu mota izango ditu: kostu finkoak eta kostu aldakorrak.

Lehenik eta behin, gure kostu finkoak hilero edo denboraldi batez jadanik zehaztuta dauden gastuak dira. Hona hemen kostu finko guztiak:

- **Lokalaren alokairua:** 3700€/hilabetero.
Traspasoa da beraz, ez dugu erreforma handirik egin behar.
- **Asegurua:** Urtero, 600€ ordainduko ditugu aseguruari, eta honek estaliko diguna hurrengo da: tximista erorialdiak kalterik eragiten badute, suteak, sukaldearengatik produzitutako leherketarik egotekotan, edo gasaren ihesengatik kalteak egongo balira.
Horretaz gain, uholdeak edo ustekabeko ihesengatik eragindako minen estaldura eta lapurretarik egotekotan, kalte-ordainketa bermatzen digute.
- **Lizentziak:** Taberna edo jatetxe bat irekitzeko lizentzia 1.900€ko prezioa du, behin soilik ordaindu behar da, lokala irekitzean. Horrez gain, lizentziaren izapidea 1.603€ko prezioa du.
Bestalde, elikagaiak maneiatzeko lizentzia 9€ko prezio du pertsona bakoitzeko, beraz 18€ ordaindu genituzke bi sukaldari baitaude.

Kostu aldakorrak:

- **Hornitzaileak:** Nahiz eta kostu hauek aldakorrak izan, ondasun kantitatea dela medio, estimazio hau egin dugu:
Makro → 989€
Gargantua tortilak → 257€
Provedores de refrescos → 1134€
Cafe Legarreta → 326€

